

Subjektibotasunaren garrantzia euskararen biziraupenerako

*

J. R. ETXEBARRIA / J. M. ZALAKAIN

*

azken mendeetan eta gaur egun ere euskararen garapenerako dauden baldintza objektibo desagokien errealitatetik abiatuz, artikulu honetan subjektibotasun kolektiboak egoera iraultzeko eta biziraupena bermatzeko duen garrantzia azpimarratzen da. Beti ere euskaraz bizi direnen eta bizi nahi dutenen unibertsoaren eraikuntza helburu izanik, subjektibotasuna indartzearen garrantzia aztertzen da, seinalatuz ezen subjektibotasun pertsonal eta kolektibo hori deusezteko arrisku handienetakoa gaur egungo sistema ez-euskaldunean integratzean dagoela.

Pentsaketa-saio hau egitean, ez dugu inolako asmorik euskararen eta euskal kulturaren diagnostia egin eta etorkizunera begirako soluzio magikorik eskaintzeko. Bai ordea, atzera begirako gogoeta egitekoa, iraganari begirakoa, diagnosi zuzena egiteko metodo egokia horixe dela uste izanik, hain justu, etorkizunari begira ere euskaldun garen aldetik bizirik irauteko, esan nahi baita, euskara eta euskal kulturaren ikuspegitik bizirik eta orain baino sendoago irauteko.

Gaur egungo gizartean euskaraz bizitzeko baldintza objektiboak oso onak ez direla —oso txarrak direla ez esatearren— entzun izan dugu sarri, eta oraindik ere lelo hori egunero entzuten dugula esatera ausartuko ginateke.

▮ J. R. Etxebarria doktorea da Fisikan eta J. M. Zalakain doktorea Kazetaritzan.

Izan ere, seguruenik, argudio hori darabiltenek arrazoia dukete, edonork ikus baitezake euskaldunok talde minorizatua gabela, alegia, leku eta aukera askotan —gehiene-tan— minorian gaudela. Eta demokraziaren indarra kopuru- en handitasunean jartzen dutenek, arrazoi objektibo as-ko dauzkate, demokratikoki desagertzeko zorian gaudela esateko. Dena den, hori ez da nobedade berri-harrigarria, aspalditik datorkigun zama objektiboa baizik; eta horren erdian bizi izan gara mende luzeetan zehar, bereziki azken hiruzpalau mendeetan arrazoi objektibo horiek indarrez inposatu zaizkigularik, dela espainiar erresumaren batasun-aren izenean, dela frantziar iraultzaren izenean.

Baldintza objektiboak aztertzekeo gurariari —premiari?— ezetzik esan gabe, ez da hori bereziki izango artikulua honetako aztergaia. Datu objektiboak eta enpirikoak emateari uko egin gabe, beste aztergai bat izango dugu buruan, diagnosi osoagoa egiteko baliagarri suerta daitekeena, objektibitate horrek adinako garrantzia dukeena, euskararen eta euskal kulturaren *subjektibotasunarekin* loturikoa hain justu. Uste baitugu, baldintza objektiboek nekez azal dezaketela beren hutsean gaur egungo egoera, zeren, horienatik balitz, aspaldiko kontua bailirateke euskara eta euskal kultura, ondo hilda eta lurperatuta baileudeke, edo onenean, unibertitateetako ikergai eta museoetako erakusgai; esan nahi baita, gai hil, soil eta aseptiko, hori besterik ez.

Arestian argitaraturiko zenbait lanek asko argitu digute azken hiru-lau mendeetako euskararen baldintza objektiboen alde garrantzitsuenetako bat, alegia, administrazio publiko eta gobernuetatik euskarari eta euskal kulturari pairarazi zaizkion bizibaldintza —edo zehatzago esateko, hilibaldintza— objektiboena: legeak, dekretuak, agindu bereziak, irakaskuntza-planak... den-denak euskara desagertaraztera zuzendutakoak. Altxor ezin estimagarriagoak dira, besteren artean, azken urteotan Jimeno Juriok plazaturiko liburuak —bereziki Nafarroan euskarak izan duen galerari buruzkoa— eta oraintsu Joan Mari Torrealdaik kaleraturiko *El Libro Negro del Euskara* famatua. Horietan argi eta garbi ikus daiteke, mendeetan zehar euskara eta euskal

kulturaren aurka egindako eraso sistematiko etengabekoa, orain, kolpera gure begien aurrean jarritakoan eta bere osotasunean aztertzean, harritu egiten gaituena. Harritu egiten gaitu, baldintza objektiboen arabera benetako mirari modura agertzen digulako euskararen iraupena, ezinezkoa baitirudi, administrazioaren ahalegin sistematiko horien guztien erasopean egon ondoren oraindik ere bizirik irautea. Horixe da, hain zuzen ere, mirarietan sinesten ez dugunok gehien harritzen gaituena, eta biziraupenerako bestelako indar boteretsuak —boteretsuagoak ote?— ere egon behar dutela pentsatzera garamatzana. Horiexek dira bereziki ardura digutenak, eta horiexen bila abiatu gara. Indar horiek euskararen aldeko ekimen askoren atzetik sumatu izan ditugunak dira, gehienetan herri-mugimenduen itxura hartu dutenak, eta, laburbilduz, gure herriaren barneko *indar subjektiboak* direnak, baldintza objektiboiei aurre egin eta aldarazteko gai izan daitezkeenak. Hori buruz arituko gara artikuluan zehar, subjektibotasunaren garrantzia behin eta berriro azpimarratuz, mugimendu horien guztien azpian eta abiapuntuan erabaki subjektiboa baitago, euskaldun bizitzeko asmoarena, *erabaki pertsonala izanik ere, nagusiki erabaki kolektiboa dena*. Kolektiboki euskaldun modura bizi nahi izate hori da ikastolen mugimenduen atzean egon zena eta oraintsuko euskararen unibertsoaren mugimenduen abiapuntuan egon dena.

Euskararen alde emandako pausoak

Euskara, dagoeneko, kilometro asko egina da azken hamarkadetan. Gaur egun duen egoerara iristeko, makina bat neke, lan, izerdi eta buruhauste emana da. *Aritu, ekin, ibili, korritu, saiatu, jo, eragin, bultzatu, saiatu, ahalegindu...* horiexek dira euskararen aditzak. Aditz aktiboak, subjektu ekintzailea eskatzen duten aditzak dira euskara dagoen tokira eramanez dutenak. Urtean zehar egiten diren ekimenen izenetan ederki asko mamiturik ageri da ahalegin horien guztien aktibotasun trebea: *kilometroak, ibilaldia, urratsak, oinez, korrika*. Ondo esanda daude, beraz, ongi egiten dena

azaltzeko, adierazkor eta esanguratsu. Gauzak berez ez dira egiten adierazteko asmatu hitzak, subjektu aktibo baten eragina erakusten dutenak, hain juxtu.

Alegia, norbaitek hamaika *pauso* eginak ditu euskarak gaur egun duen mailara ekartzeko, edo igotzeko, nahi baldin bada. Mendizalea da oso herri hau, igoera malkartsutan zaildua. Denak ez dira goi-mendietan ibiltzeko jaiok, baina oso gustukoa dute euskal herritarrek mendian jardutea: ibilian ibiliz askok pasean edo, arinetan batzuek, abiadura bizian beste batzuek. Gutxi batzuk *zortzimilako* tontorretara igotzeko abila dira; eskalatzeko ere, badaude batzuk. Arroketan eskalada librean saiatzeko gauza direnak ere badira zenbaitzuk, baita oxigenorik gabe ibiltzeko adina adore duenik ere. Kontua da ekitea, mugitzea, harantzago jotzea, bidea egitea: terreno lauagoan, zakarragoan, izoztuan, aldapatsuan; negua dela edo bestelako udaroren bat dela. Beti aitzina!

Euskara-alorrean gauza bera gertatzen ari dela esan genezake. Eta, jakina, euskara ez dago lehen zegoen tokian, *marka* asko hautsi dira egoera objektiboaren kontrako apustu bizian arituz. Errepaso txikia eginik panorama erabat aldatuta dago. Ez da, ez, orain dela hogeitau berrogei edo ehun urtekoa. Ibili da, saiatu da, lortu da, nahiz eta ez den betirako finkatu; besteak beste, hizkuntza bat finkatzeko, linguistikoak ez diren arazoak konpondu behar direlako, beherago erakutsiko dugunez.

Euskararen aldeko bizinahiak mendez mende egin duen aurrerakada —erresistentzia-ahalegin soiletan edo erasora paseaz eraikiz eta sortuz— hemen jasotzea ezinezkoa denez, ibilbide gatazkatsu horren zati bat hartuko dugu aztergai, hurbilen daukaguna hain zuzen ere. Beraz, azken menderdia mugatzat hartuz, trantsizioari pasabide modura begiratzuz, gaur egun euskarak duen egoera, euskara hutsezko ekoizpenei erreparatzuz, kontuan hartzekoa da: bagabiltza, bai horixe! Eta bakoitzak jakingo du ahalegin horretan zer dagokion berari, izerdi pats ikaragarri horretatik zenbat tanta ixuri diren norberaren soinetik. Gainbegirada xume bat eginik, badugu unibertitate atarirainoko euskarazko irakaskuntza (politiko malapartatu, guraso ar-

duragabeko eta irakasle interesatu askoren saio uztartuen erruz, bitan banaturikoa bada ere), badugu euskarazko egunkaria, lanaren lanaz, aurten inoiz baino kontu hobek egin dituen. Ia herri bakoitzak badu bere aldizkaritxo, batzuetan idatzizko jardunari irratia eta telebista erantsiz, multimedia bihurtzerainoko emaitza lortu duena erarik harrigarrienean. Bestelako aldizkariei bagagozkie, ia denetarikoa daude, salbu *Marca*, *As* eta antzekoak gizona ezkoentzat; *Hola* eta *Lecturas* eta gisakoak andrazkoentzat. Egoera kaskarrean egongo dira gehienak, ez dute behar beste baliabiderik edukiko ekoizpen beteagoa sortzeko, hiltorian egongo dira beste batzuk —umeentzakoak, adibidez—, baina hortxe ari dira eguneroko borrokan.

Ez dugu ahortzi behar, noski, telebista oso bat badugula, txoritxoaren telebista, irratia zenbait, herriaren lurralde osoa hartzeko lanak dituztenak bai eta instituzio autonomikoen esku izanik arazo ideologiko bat baino gehiago sortzen dituztenak, hori ere bai; baina ukan baditugu. Testugintza aurrera doa etengabe, sorkuntzan apalago baina itzulpengintzan nahikoa azkar. Idazle, argitaletxe eta oro har produkzio idatziaren lekuko, hortxe ditugu *Euskal idazleak, gaur* (1977) eta *Euskal kultura gaur* (1997). Horiei behatzea baino lan zuzenagorik ez dago idatzi idazten dugula —etengabe gainera— ikusteko, argitaratu ere bai argitaratzen dugula, holako jardunak dituen ajeak eta bost pairatuz, jakina, baina hazkunde jorian. Bertsotan zer esanik ez, belaunaldi batek besteari hartzen dio txanda eta ez dirudi agortzeko zorian dagoenik herri honek bertsotarako omen duen berezko etorria eta trebezia: paperbidezkoak, bat-batekoak, bertso-saio, bertso-afari eta bertso-txapelketa, trikiti-bertso eta beste anitz molde.

Hiztegi —euskaraz hutsez, gaztelera, ingeles, frantses eta bestelako zenbait hizkuntzen adieraz lagundurik—, entziklopedia —tomo bakarrenean eta tomo-sortan eginak, gustuen arabera nahi adina—, kontsulta-liburu eta enparau frango baditugu, nahikoak ez, soberan ere ez. Enpresa bat baino gehiago ari da ekoizpen horretan buru-belarri sartuta, kompetentzia leial-desleial —auskalo— baten gurrpilean zoro-zoro eginda. Hizkuntzalari-andana badabil

euskararen inguruan egiten den produkzio, emaitza, erabilpen eta molde bakoitza lupaz begiratu, kontuak eskatu —batzuetan errukirik gabe larrutzeraino, elkarri mokoka ez gutxitan— eta proposamenak egiteko, oker dagoena zuzenarazteko.

Bere burua euskalduntzeko edota alfabetatzeko behar diren tresnak badira, borondate, denbora, premia, ahalegin eta gogoaren arabera aukeran, egunero-egunero, astean zenbaitetan, barnetegian ala ez, norbanakoaren egoeraren neurrira. Biblia gaurkotua ere badugu, berri-berria, katolikoaren monopolioa alde batera utziz kristauen elizen artean mamitua eta paratua, gure artean protestanterik ere badela frogatuz eta onetsiz. Itzultzaileak jo ta ke ari dira, klasikoak, modernoak eta aukerakoak euskarara bihurtuz, filosofia, psikologia, politika, soziologia, zuzenbidea etab., biblioteka dexente bat osatzeko lain. Lege-kontuetan dihardute-nez, gero eta testu gehiago omen dituzte euskaraz beren jarduna taxuz eta artez burutzeko, gelditzen zaiena egin dutena baino mila bider gehiago izanik. Eta hola jakintza-ren eta bizitzaren beste zenbait esparrutan. Informatika-alorrean aterrunerik gabe sortu eta sortu ari diren aurrerakuntza ororen ispilu omen den internet, *e-mail* edo e-posta eta antzeko baliabideen gurdia ere harrapatu du euskarak eta, ikusten den arabera, ordenagailuen arteko korrespondentzia-trafikoa ugarituz doa tresna horietan jokatze-ko erabiltzaile-kopurua animatuz doan heinean. Administrazioarekin ekidin ezinezko harremanak euskaraz molda daitezke —ez beti, zoritxarrez, baina batzuetan aurpegi txar eta gogo epel guztien kontra, eta beste batzuetan, berriz, langile prestu eta prestatu bati esker—. Ogasun-zentruetan, udaletxe bakan batzuetan, kultur etxeetako funtzionario batzuekin edo zenbait ertzainekin —saiatuz gero— euskaraz hitz egiterik badago. Hor ere Udalerri euskaldunak ditugu eredu eta jarraibide.

Sortu bakarrik ez, lanari etekinik handiena ateratzeko azkenaldion egiten diren ahaleginak, berriz, ez dira makalak, koordinazioa areagotuz: EKB izan da orain arte, kultura mailan ari zirenak elkar lortzeko ekimenaren izen propioa; Unibertsoa eta horren kume Kontseilua da, gaur

egun, ekimen berritua, askoz landuago eta proiektzio aberatsagoa izan dezakeen ekimen sortu berria. Lanean eta ahaleginean dagoen konfidantzaren adierazle, *etorkizuna euskaraz datorrela* esanaz plazaratu berri zaizkigu bost lantalde (Ikastola, Egunkaria, Topagunea, AEK eta EHE). Unibertsitateari buruz, beherago hitz egingo dugu; esan dezagun, jadanik, hala ere, gezurra dirudien arren, azken erakunde hau besteak baino traketsago ari dela inorena izatekotan berea izan beharko lukeen euskararekin zerikusirik dukeen kultur ekarpena eskainiz, plangintzarik gabe, eta dituen adar euskaldun eskasak kamusten saiatuz.

Estilo propioa

Ekimen hauek guztiak, jakina da, ez dira jatorri berekoak. Ezin ditugu denak zaku berean sartu, ez jatorriari begira, ez dimentsioari begira, ez helburuei begira ere. Izan ere, zabalkunde berdinek ez dute denek, baliabide eta ahalmen berbera ere ez. Ekimen horietako batzuk, instituzio autonomikoen eraginetik sortu dira edo, gutxienez, beren itzal eta babesean. Beste batzuk, ez; *gehienak ez*. Inpresioa dugu guk —frogatua ere bai, zergatik ez esan—, herri honetan sortu diren ekimen aberatsen eta eraginkorrenak herriaren altzoan sortu direla, eta ez erpin instituzionalean. *Herri-ekimenari* zor zaizkio, bai sorreran bai garapenean eta bai kudeaketan ere.

Herri-ekimenek badituzte bere-bereak diren ezaugarri batzuk, berezkoak, erakundeetatik sortu eta mantentzen direnek dituztenak ez-bezalakoak, alegia. Egoera zaharrarekiko *etena* da lehena eta, horrekin batera, egoera berriaren aldeko *apustua*. Euskararen aldeko ekimenek, beraz, erdaraz mamitu eta funtzionatzen duen egoerarekin apurtu ohi dute lehenik, euskara hutsezko errealitatea sortu eta finkatzen saiatuz. Etena kostata egiten da, eta ohikoa ez den eremu edo lurralde batean eta askotan ezagutzen ere ez diren oztopo guztiak gaindituz ibiltzeko erabaki sendo eta zalantzarik gabea hartu behar da. Ez da beti ondo ulertua izaten; hobekien ulertu behar luketenean, maiz, irri egi-

ten dute. Apustua da, eten horri bizkarra eman gabe bizi-
tzeko erabakiaren lehen unea. Apustua ez da baldintza ob-
jektiboetan oinarritzen; justua den proiektu baten baitan
botatzen ditu sustraiak. Irabaztea ez dago ziurtatuta; apus-
tua egin dutenek apustuari eusteko duten borondatea da
berme bakarra: kolektibitatearen lur umotuan errotutako
subjektibotasuna, berriro ere. Euskal Herriak bizi duen hiz-
kuntz gatazkari bagagozkio, adibidez, etena ez da erdara
eta elebitasunaren artekoa, azken hau erdararen alorrekoa
baita, erdara gehiago edo gutxiago baitu xede. *Etena erda-
raren ordeztu euskara hautatzean dago*, unibertso oso bat bere
erreferentzia eta guzti antolatzeke asmoz.

Partaidetza dator gero. Erantzukizun-maila desberdi-
nak onartu arren —hau ez da *autonomotasunaren* aldeko
alegatoa— ekimen horretan kide izan nahi duten guztien
eskuhartzea, alegia. Herri-ekimenaren jarduna ez da hie-
rarkikoa, ez da goitik beherakoa, horizontala da. Ez da na-
gusi eta menekoen artekoa, proiektu bereko kideen arte-
koa baizik. Ekimen publikoa da herri-ekimena, publikota-
sunari benetako izaria itzuliz: parte hartu nahi dutenen ar-
teko jarduna. Guztientzako zerbitzua eskaini nahi da, hau-
tu ideologikoaren ildotik at, ideologiak ukatu gabe, horien
sareetan tratatu gabea, hain zuzen ere. *Balio unibertsaleko
printzipioak* lantzen ditu herri-ekimenak: askatasun-ega-
rria, justizia-sena, elkartasuna. Horrexegatik, hain zuzen,
kolektibitatea du gogo eta helburu. Hasieran gutxi batzuek
eragindako ekimena izan arren, zabalik dago guztientzat,
ez du hipoteka instituzionalik. Herritarra esaten denean,
beraz, ez da aipatu nahi zatarra denik, ardura eta axola gu-
txiko zerbait, *titulartasun ez-administratiboa duen zerbait*
baizik, ez estatuena, ez administrazio autonomikoena;
parte hartu nahi duten kideek ezartzen diote ekimenari
herritartasuna, benetako publikotasuna. Ederki asko adie-
razi zuen Adolfo Suárezen partiduak (UCDk), adibidez,
ikastola zer zen: *centros públicos de titularidad no estatal*.
Hori berori, bada.

Herri-proiektu oso bat dute gidari herri-ekimenek Eus-
kal Herria eginkizun dagoen herria baita, gizarte normali-
zaturik gabea. Edozein ekimen partzialki heltzeko, proiektu-

tuaren osotasuna da argiemailea. *Herri-mugimendu* izena eman izan ohi zaie, gaur egun ahantzi samarra dagoen zorioneko hitz elkartua gogora ekarriz. Gaur egun *gizarte-ekimena* hobesten den arren, bi kontzeptu horiek ez dira batera gauza bera. Hori adierazteko gogoak bultzaturik, zilegi bekigu bereizketa batzuk egitea, izendatzeko moduaren aldaketa hori ez dela inozoa frogatzeko balioko dutelakoan. Aldi berean, estilo propio horren ezaugarriak nabarmenago geratuko dira.

Talde batek, dela prentsa mailan edo bestelakoren bategan, bere helburuak formulatzeko, lortzeko eta defendatzeko prozesuan erakusten duen ahalmen objektiboa eta subjektiboa da mugimendua. Hain debaluaturik dagoen *militantzia* da mugimenduaren ezaugarri nagusia, hau da proiektu berri bat gauzatzeko erakusten den prestutasuna eta adorea. Proiektu berritzaile batekiko *leialtasun historikoan* azaltzen da. Leial denak, alor propioa ondo bereiztuz, premiak eta bitartekoak uztartzen badaki. Ausardiaz beteta baina taxuz aritzen da. Egindako apustua irabazten daki militante leialak, eta ordurarte jardunean jarraitzen du.

Mugimendua, ordea, bi posiziotan aurkitzen da: gizarte baten egituraren ahuleziak eta gabeziak osatzeko ahaleginean ari den mugimendua *gizarte-mugimendua* da. Aldiz, mugimendu hori, gizartea bera beste marko batean kokatzeko saiatzen ari denean, marko nazional desberdinean, markoa bera sortuz, *herri-mugimendua* da. Herri-mugimenduak marko-aldaketa du eginkizun, nazio bati dagozkion ezaugarri guztiak eraikitzen saiatzen da. Markoak, hemen, kontzeptu koalitatiboa esan nahi du, beste estatu zati den Euskal Herria mundu oso bat dela adierazten baitu.

Beste nonbait landutako kontzeptuak hona ekarriz —eta edozelan ere, euskararen geroari buruz ari garela, horretarako balioko duelakoan—, gogora dezagun Euskararen Unibertsoaren sorreran egindako gogoeta nagusian hasiera-hasieratik bereiztu zena:

Edozein gizarte-zereginetan lehenbiziko fasea, eta garrantzitsuenetakoa, unibertsoa definitzea da, hau da, mugarriak ezartzea. Eraikuntza honek gobernatzen ditu

hurrengo urrats guztiak, emaitza eta ondorioak baldintzatu, eta eragin anitz eta ezberdinak ditu kulturaren baitan. Hain zuzen ere, jende guztiak, guk guztiok, egunero eta eguneroko bizitzan, giza jardunei esanahia sortu eta emateko interpretazio-tresna modura erabiltzen ditugu arau eta balioak, unibertso eta kategoriak. Horregatik zaigu hain garrantzitsua unibertsoak eta kategoriak nola eraikitzen diren eta zer ezaugarri dituzten aztertu eta jakitea. *Unibertso* diogunean, bere bizitza, nortasuna eta arauak sortu eta garatzeko gaitasun propioa duen edozein munduri deitzen diogu. Beraz, «esparru», «sistema», «komunitate» eta honelakoak. Gertatu ere gertatzen da azken hitz-sorta honetako batzuek zenbait konnotazio eta esanahi kokatu edo sektorial hartu dituztela-eta, «unibertso» hitza hobesten dugu, garai zail hauen aurrean, energia berriz euskararen mundua, unibertsoa, egoki dezagun. *Kategoria* diogunean, berriz, unibertso horretako zati, izaki, klase edo osagaiez mintzatzen gara.

Euskararen aldeko edozein ekimenek bi posizio hauek har ditzake. Bilatzen dena euskarak *ere* gizarte honetan leku izatea baldin bada, adibidez, gizarte-mugimendu baten aurrean gaude, *ez du erderen nagusitasuna zalantzan jartzen, euskara ez da unibertso*. Mugimendu horrek ez du gizarteari uko egin eta nazio berri bat sortu nahi. Ostera, helburua eta eguneroko lanaren jitea, markoa bera aldatzea baldin bada, dagoen egoera deszentratuz beste zentratze bat proposatuz —hau da, euskara izan dadila Euskal Herriaren zentru bakarra—, herri-mugimendua da dagoena. Edota, orokorrage esanda, Euskal Herria izan dadila kontuan dugun espazio bakarra, ez orain arteko beste errealitate estatalen zati; orduan herri-mugimendua daukagu.

Bi posizio hauek (herri- eta gizarte-) mugimenduaren zati dira, eta biak dira beharrezkoak. Izan ere, Euskal Herria sortuz eta sortuz ari dena, aldi berean, oraingoz marko estatalaren baitan ari da, nahi eta nahi ez orokortasun horren parte *ere* bada. Baina, ez ahantzi gero —esperientzia duenak ondo frogatuta dagoela aitortu beharko du— herri baten sortze-lanetan aritzeak ematen diola nortasuna, indarra eta berezitasuna gizarte jakin batean egiten den lanari. Adibide batekin azaltzeko: kontua ez da euskara lan-

duz eta garatuz, gaur egun Euskal Herriari existentzia bera ukatzen dion estatu-alorra finkatzea —izan ere, euskara baztertzea demokraziaren printzipioak zapaltzea izanik, nola ez kontuan hartu gizateriaren altxor omen den hizkuntza bitxi hau!— eredu hispano-frantsesaren bertsio euskalduna garatuz hain zuzen, baizik eta gizartearen alor bakoitzean —irakaskuntza, argitalpena, prentsa etab.—, euskara landu eta garatzeko egiten den ahalegina herri-proiektu oso batekin lotu eta uztartzea, horrela, aldi berean, gizarte berri bat antolatuz. Beraz, gaur egun, gure ustez, ezin dira banandu euskararen unibertsoa —hots, euskararen aldeko herri-ekimena— eta Euskal Herriaren aldeko proiektua. Areago, bigarren hau gabe, hura txepeldu baino ez da egingo.

Egitura eta izpirituak, biak

Gu oso oker ez bagaude, gaur egun finkotasun-maila dexentea hartu duten euskararen aldeko ekimen ia guztiak herri-ekimenetik sortu dira. Ez soilik erakunderen ezean beste erremediorik ez delako izan, erakunde autonomikoak sortu direnean ere bai. Esan genezake, gorago aipatutako estilo propio horren fruitu izan direla —beren kontraesan eta guzti—. Euskal Herria euskalduntzeko izpirituak eraginda saiatu dira hainbat eta hainbat herritar, gaur egun dauzkagun errealitateak taxutzeko. Sentsibilitate bereziaren bultzadapean mamitu dira. Iraupena izan dezaten, ordea, egitura bihurtu dira, erakunde, antolakunde. Ezin besterik izan, erakunde modura finkatzeko sortzen baita. Eta hala behar du.

Hala ere, eragiteko dinamika eta eraginaren indarrez sortutakoari eusteko dinamika, ez dira gauza berbera. Finkatzen, erakundetzen, eraikuntza bihurtzen den oro, gogortu egiten da; zurrundu, malgutasuna galduz. Hasierako askatasun erabatekoa —ezer galtzerik ez dagoenean bizi dugun ahalmen sortzaile mugagabea— galbidean jartzen da. Gehiago erreparatzen zaio gorde eta zaindu behar denari, eten eta sortu behar denari baino. Hola da eta gizaki ga-

ren bitartean horrela izango da. Ez gara gu purista. Alabaina, herri-ekimenetik sorturiko produktu jakin batek —enpresa batek, adibidez—, hasierako intuizioari eta izpirituari leialtasuna zor dio, hau da, kalean jarri duen giza multzo eta proiektu horren zerbitzuan jarraitu behar du. Bi elementu kontrajarri horien arteko dialektika aberasgarririk gabe, jai du produktu horrek. Herritar sortu ondoren, instituzio huts, oskol huts bihur daiteke, oharkabean, sortzeko garaian bizitza bera ukatu zioten eta koskortze-aroan bizitza zaildu baino egiten ez diotenen esanetara. Hasierako izpirituaren freskotasun galdua gogora ekartzen dutenak, *idealista*, *utopiko*, *anakroniko* eta antzekotzat joko ditu, oso egoera bitxia sortuz. Hau beti gertatu ohi da, elizan zein partiduetan; zergatik ez guk sortzen ditugun gauzetan?

Arrisku hori beti dago eta onartu beharra dago. Alabaina, dinamika horretan —eta haxe da gure proposamena— ekidin ezinezko une hori iritsirik, jatorrizko hatsari eman behar zaio lehentasuna, benetako oreka mantendu nahi baldin bada. Bestenaz, akabo!, euskarazko produktua eduki arren, sortzerakoan eragindako baloreak baztertuko dira, egoera zaharra errepikatuz. Esan eta nabarmendu nahi duguna da, euskararen kariaz eragindako indar-erauntsia ez dela abian jarri kode linguistikoaren aldaketa hutsa egiteko eta kitto, kode horren bitartez, errealitate berri bat sortzeko ere baizik, alegia, izateko modu batean eta jarduteko estilo batean bizirauteko.

Adierazten ari garena ulertuko delakoan, ikustea besterik ez dago zer nolako interesa izan ohi duten instituzio ofizialek, herri-ekimenetik sortutako eta herri-ekimen gisa jarduten duten inizatibak nola edo hala irensteko. Ikusi besterik ez dago ekimen horiek diru-premiak estutzen dituenean, zer nolako trukeak exigitzen dituzten. Horrelakotan ibili den edonork badaki arriskua zein den, gogoaren kontra, borondatea behartuz, baina ia-ia halabeharrez, zein gaitz den hasierako estiloari eustea, sortze-garaiko baloreak mantentzea. Saiatzea bederen merezi duela esatea, horixe da gure mezua, izpiritu berria duten produktuak erakutsiz bizirik irauteko, egitura sortzaile eta ez errepika-

tzaile bihurtzeko. *Euskal guneak sortzeko erabili behar izan diren ahaleginen saria ez dadila izan errealitate zaharkituen bertsio euskalduna*. Hori gerta ez dadin —esan dezagun berriro— gizon-emakume erabakituen premia dago, subjektibotasun ekintzaile, sutsu eta nekaezinak behar dira —herri honek ugari ematen dituen horietakoak—, *militanteak* —ez boluntarista; jantziak, abilak, ikasiak, jasoak, irudipenez beteak, zuhurak, saiatuak, profesionalak— *euskaratik bizitza baino euskaraz bizitzea* amets duten herritar bipilak, kolektibitatearen premiak hezurmamiturik, bide berriak urratu eta erabat ibili arte, kosta ahala kosta irauteko prest daudenak. Badakigu nahikoa *demodée* daudela kontzeptu hauek, baina gure hipotesien arabera euskaldun gisa bizitzeko geratzen zaigun bidea guk uste bezain luzea baldin bada, has gaitezen kontzeptu horiek hautsetik errekuperatzen!

Hor nonbait idatzi du norbaitek, betiko euskaldunek natural bizi dutela euskara; euskaldun hiritarrek, berriz, beharturik. Akaso bai. Guk beste era batera adieraziko genuke, agian, norbait horrek esan gabe utzi duena. Alegia, *natural bizitze hori eskubide kolektibo bat da*, edozein herritako hiztunek hori dute ondare, gutxienez beren hizkuntzan natural bizi ahal izatea, hizkuntza bat dutenik konturatu gabe bizi ahal izatea, hizkuntza ez dakien gatazkabide bilaka. Baina hori betetzeko asko falta zaio, natural, normal bizitzerik ez duen herri honi. Kontua ez baita *batzuk hori egitea* —inguru erabat euskaldunetan bizi direnak, adibidez, horrelakorik baldin badago—, *kolektiboki posible izatea* baizik.

Lan hau gauzatzen ari ginela hara hor non topatu dugun Juan Luis Goikoetxeak idatzitako *zutabe* ezin egokiago bat. Honelaxe dio:

Ondo doa euskara? Kontxo! Nondik begiratzen den da hori! Gatozen osinetik etorrita, ikaragarri aurreratu dugu. Lortu beharreko helmuga kontuan hartzen bada, kilometro mordera falta da. (...) Euskara ondo doa? Behar bezala joan dadin, gaurko egoera politikoa gainditu beharra nabarmentzen da, hots, euskara defendatzeko adinako burujabetza. Bizi dugun egoera behin-behinekoan,

ezin eraiki daiteke euskara finkorik, behin betiko oinarri-dunik.

Hara bada, ekidin ezineko gakoa, beldurrik gabe begiratu behar zaion mamu itsusia: politika. Euskara ez dago salbatzerik linguistika hutsetik, herri baten kide garen kontzientzia indartzetik baizik, kontzientzia politikoa erakiz eta herri-proiektu oso bat xedetzat edukiz. Euskararen etorkizuna politikaren guda-landan erabakitzen da, ez Akademietan (eta argi gera bedi akademiak, linguistak, hizkuntzalariak etab. beharrezkoak direla). Burujabetza-kontua da, bete-betean. Esan gabe doa, horrek prezio bat daukala, norberak —berari dagokion lan-alorrean— ordaindu behar duena. Inpresioa dugu arazoaren zati bat ez ote den prezioa pagatzerakoan uzkurregi gabiltzala. Euskaraz bizi bai, euskaratik ere bai ahal izanez gero, baina ahaztu gabe euskarari ildo berriak zabaltze hutsak —zer esanik ez euskararentzat burujabetzan oinarrituriko egoera politikoa sendotzeak— prezio altu samarra eskatzen duela; eta hala xe izango da herri hau normaltzen ez dugun bitartean.

Corrutakoari eutsi eta ildo berriak ireki

Adibide bat jarriko dugu: Abokatu Euskaldunen kasua, inondik ere adierazkor iruditzen zaigulako, hain zuzen. Asko izan dira abokatu eta jurista euskaldunak, arlo horretan euskarak lortu gabe daukana seinlatu dutenak. Asko kexu agertu direnak, epaitegi-alorrean ia dena egin barik dagoelako. Bilerak, saioak, topaketak, eskariak, pape-rak, txostenak, salaketak, helegiteak, eurrez! Talde erabakitu batek, *aski da* esan duen arte eta egoerari buelta emateko ardura bere bizkar hartu duen arte, datorrenari aurre eginez —isunak, inhabilitazio-mehatxuak, guztion ahotan ibili beharra, etab.—. Guk konfidantza dugu, abokatu horiek amorerik ematen ez badute, guztion laguntza eta aupada sentitzen badute, gutariko bakoitzari dagokionean eta unea ikusten dugunean, alor horretan ere geure esku-bide linguistikoen aldera zorrotz jokatzeko badugu, lortu egingo dutela helburua, eta epaitegietako egoera beste fase

erabat desberdinera igoko dutela. Horixe baita jokatzeko modua. Urteak eta milenioak egon daitezke jurista *irekiak* euskara epaitegietara eramateko proposamenak egiten; baina bultzada definitiboa, *planto* egiten duenak ematen du. Jakina, agian denek ez dute balio ildo berriak zabaltzeko. Bego! Balio ez dutenek, ostera, badaukate berezko eginkizuna: horretarako gai direnen kontra ez jartzea. Gu-txienez hori.

Lortu dugunari eutsi egin behar zaio eta ez arriskuan jarri, esango du batek baino gehiagok. Dena apurtu eta atzekoz aurrera ipintzen ibili beharrean, badaude modu zibili-zatuagoak; eramanpen gutxiko lau mukizuk odola irakiten dutelako, ez dugu guk alferrik galduko hainbeste nekeren nekeaz eskuratutakoa; ez ditugu subentzioak zalantzan jarriko; ezin dugu arrisku hori jasan... botako du besteren batek. Arrazoi horiek txantxetakoak ez diren arren, ibili beharra dago, derrigorrezkoa da ildo berriak irekitzea, lortutakoari eustea bezainbeste. Patxada osoko egunak ez du oraindik euskaldunontzat jo, alferrik da plantak egiten ibiltzea eta herri ez-minorizatu bati dagokion moduan bizi nahi izatea. Eskura dauzkagun errealitateak —langileen eskubideekin gertatzen den modura— ez daude betiko seguru. Eskubide direnez, borrokarik egin ezean galdu egiten dira. Lorturik ditugun eta hainbat ahalegini esker txukun mantentzen diren produktuak ez ditugu beti eskura izan; banaka batzuek —gehienetan oso lagun gutxik— bere onena —bizia barne— eman ostean lortu ditugu. Normala da hemendik aurrera lortu behar direnak ere modu berberean lortu behar izatea. Eta eskerrak, kostata lortzen dena baita gehien maite duguna.

Beste adibide bat atal hau amaitzeko: gaur egun beren haurrak ikastolara eramaterik dituzten gurasoek, hori eskubidea dutelako gertatzen dela esan dezakete. Eta bada hori ere, baina ez da beti horrela izan. Izerdi eta neke kontaezinak daude hain eskubide natural horren giblean. Zer dago harritzeko, gazte batzuk epaitegietan euskaraz deklaratzeko duten eskubidea errebindikatzuz sartzen badira, edota klaustro unibertsitarioan euskaraz ikastekoa aldarrikatzeko? Alderantziz, nor da idazkari ziztrin bat euskaraz

ikasi nahi duen preso baten eskariaren aurrean zailtasunak erakusteko trebe agertzeko eta konponketa bilatzeko uzkur? Gaur egungo baldintza «objektiboetan» euskaldun izatea garesti samar ateratzen da. Bakoitzak berean saiatu beharko du —luzaz gainera— euskaldun izatea eragozten digun *sare pelagikoa* apurtzen. Berriro diogu, gu ez gara purista. Sare hori ezin da kolpe batez desegin, ez eta hurrik emanda ere. Bakoitzak bere zulotxoa egin beharko dio, bi-zi-hautuak, lan-premiak edo patuak bizitzen jarri duen alde zehaztetik hasiz, dena hondatu eta itxaso zabalera leku propioaren bila abiatzerik lortu arte.

Guk ez dugu protestatzeagatik protesta egin behar dela esan nahi. Areago, protesta ez da euskararen ajeak konponduko dituen mekanismoa. Ez dugu esan nahi —ez horixe!— lortutako espazioak ganorarik gabe abandonatu behar direnik, hori behar genuen! Guk justiziaren alde, euskaldunon eskubideen alde ekiteko beti prest egotea ikusten dugu komenigarri. Jarrera hori hartzeagatik gal daitekeenari buruz pentsatze hutsak sortarazten digun beldur lazgarriari kasu handiegirik egin gabe, jarrera zuzena hartzeak bere fruitua ematen duen konfidantza xaloaz jabeturik. Eskuratu ditugun espazioak zaindu eta gauzatu ditugun egiturak ondo kudeatuz, bai, baina proiektu horren atzean arima saldu barik ibili garenean sentitu ohi dugun sua amatatzen utzi gabe. Egitura eta izpiritua, biak. Lortutakoari eutsi eta ildo berriak ireki, biak. Izpiritu berritzailea ororen gainetik.

UPV-EHUko kasu paradigmaticoa

Etorkizunari begira ari garelarik, egituraren eta izpirituaren arteko erlazioa gogoan izanez, eta gure egunotan izandako prozesu baten eboluziotik zerbait ikasteko, ego-kia gerta daiteke kasu paradigmaticoa baten azterketa egitea, lehendik herri-mugimendu baten aztarnak ageri dituen izanik, euskara eta euskal kulturaren aurkako indar objektiboen eboluzioan indar horiek bultzatuz oraingo egoera iraunarazteko etengabeko ahaleginean dihardute-

nek laborategi modura hartu dutena. Unibertsitateaz ari gara, eta zehazkiago UPV-EHU izeneko unibertsitateaz, oso argigarri gerta baitaiteke bertan euskararen eta euskaldun-
tzearen inguruan gertatzen ari den gatazka —horrela dei dakiokela uste dugu— aztertzea.

Bizi-eskarmentu propioaz dakigunez, lehenago ere izan da UPV-EHU hau beste borroka zabalagoen kokale-
kua, espainiar sistema unibertsitarioa inposatzearen ingu-
ruko borrokarena, hain zuzen, bere isla argiena 1983ko LORU lege espainiarraren inposizioan eta irakasleria pro-
pioaren aldeko gatazkan eta prozesu osoan izan duena. Arazoa bere koordenatu politikoetan hobeki kokatzeko,
azken urteetako ikuspegian oinarriturik eta gatazkaren ga-
rrantzi politikoa bere neurrian balioesteko, diogun ezen unibertsitate hau laborategi modukoa izan dela, gizarteko
beste arlo batzuetan gauzatu nahi izan diren *consensus*
estatalerako saiakuntzak egiteko, dela Ajuriaeneko paktua
gauzatzeko, dela euskararen aurkako estrategia sibilino-
goa saiatzeko, artikuluaresi tesi modura aurkeztuko dugu-
nez. Gure ustez, laborategi-esperimentuaren muina eta
helburua, integrazioak euskararen aldeko subjektibotasu-
nean duen eragin moteltzaile eta deuseztatzailea praktikan
frogatzea izan da, emaitzen arabera gero metodologia hori
gizartearen beste arlo batzuetan ere erabiltzeko asmoz.

Euskal Herriko Unibertsitatea versus Euskal Unibertsitatea

Ez dugu uste oker handirik egingo dugunik, euskara eta euskal kulturaren garapena bultzatzeko ahaleginean dihardutenek, funtsezkotzat dutela euskal irakaskuntza-
sistema propioaren lorpena. Eskari eta exigentzia hori aspalditik datorren kontua da, historikoki forma desberdi-
nak izan dituen, dela Hego Euskal Herrirako barruti uni-
bertsitarioarena, dela hemen kokaturiko unibertsitateare-
na... hasiera batean hizkuntzari dagokionez definizio ze-
hatzik egin ez bazen ere. Seguruenik, euskararen erabilera unibertsitarioarena zehaztasun eta tinkotasunez planteatu zeneko lehen unea, Udako Euskal Unibertsitatearen sorre-

raren inguruan etorri zen. Garai hartako eztabaidaren erdian, K. Santamaria izan zen, oker ez bagaude, bi funtsezko kontzeptu argitzen saiatu zen lehena, ordutik aurrera bi bide argi adierazita geratu zirelarik: Santamariak «Euskal Herriko Unibertsitatea(k)» eta «Euskal Unibertsitatea» bi kontzeptu desberdin direla azaldu zigun, bere hitzen bidez gogoratu nahi ditugunak. Honelaxe zehaztu zituen:

Bi eginkizun diferente dago uste dudanez, gure Unibertsitatearen alorrean. Batari Euskal Unibertsitatea dei lekiok; besteari, berriz, Euskal Herriko Unibertsitatea izena emango nioke nik, bion arteko desberdintasuna ongi azaltzeko /.../ Euskal Herrian dauden eta egongo diren unibertsitate eta sasi-unibertsitateen multzoari Euskal Herriko Unibertsitatea izena emango diogu. Aldiz, uste honek utopia itxura badu ere, nere terminologiaz Euskal Unibertsitatea, euskal kultura eta hizkuntzaren «alma mater» izan behar-ko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da.

Guk oso egokitzat dugu Santamariaren zehaztasun hura, geroago etorriko ziren gatazken argigarri, izan ere, ordutik hona, unibertsitateko barne-gatazka une desberdinetan bi kontzeptu horiek kontrajarrita agertuko dira, etengabeko kontraesanean. Gauza batean aldatuko genuke soilik orduko zehaztasuna, Euskal Unibertsitatearen «utopia itxura» hari buruz loturiko balioespena hain zuzen. Ulertzen dugu, garai hartan utopikotzat hartzea, ia ezinezkotzat. Baina oraindik lortu gabe dagoen arren, gure ustez, oraingo uneko egoera ulertzeko, Euskal Unibertsitatearen sorrera jadanik ez da hain utopiko edo ezinezkotzat jo behar. Gehiago esango genuke, aurrerago azalduko dugunez, azken boladako estrategien berregokitzapenek sorrera hori posibletzat hartzearekin loturik daudela deritzogu, posibilitate horri irteera errealak sortzeko bideak ixteko pentsatuta. Azal dezagun polikiago.

Gaur egun askotxo dira Euskal Herrian kokaturiko unibertsitateak, baina horietariko batek ere ez dio erantzuten Euskal Unibertsitatearen aldeko eskariari, hots, ezin esan dezakegu horietako bat bera ere Euskal Unibertsitatea denik. Eta asko gara horren premia dugunak, eta hori lortzeko pausoak eskatzen ditugunak eta pausoak emateko

prest gaudenak. Sorrera hori posibletzeko baldintza objektiboak egon badaudela uste dugu gainera. Batzuen gustuko hitzak erabiliz, «kapital humano egokia» eskura dago. Euskaraz ikasteko prest dauden ikasleak badaude, unibertsitate askotan baino kopuru handiagoan. Euskaraz irakasteko eta ikerkuntza-taldetan euskaraz aritzeko gai diren irakasleen kopurua ere unibertsitate askotan dagoena baino handiagoa da. Euskal Unibertsitatea abiarazteko oinarri funtsezkoenak prest daude. Eskaria bera ere plazaraturik dago duela zenbait urte, eta orain dela hiru urte UEUk buruturiko kongresuan berriro ere planteatu zen arazoa konpondu beharraren deia... Labur esanda, falta den gauza bakarra borondate politikoa da; ez politikariena soilik, euskaldunena ere bai baizik. Borondate politikoa eta unibertsitate hori eraikitzeko erabakia. Noizpait abiatu beharko baita prozesua. Baina bitartean badirudi UPV/EHUren zuzendaritzatik hesiak jarri nahi direla prozesu hori abia ez dadin, unibertsitate horren euskalduntze osoa mugatzeko bideak jartzen ari baitira praktikan.

UPV/EHUko euskalduntze-prozesuaren zenbait gora-behera

Nolanahi dela, Euskal Unibertsitatearen aldeko eskeriak izan du bere eragina jadanik ditugun unibertsitateen euskalduntze-prozesuetan, azken aldian UPV/EHUren kasuan bereziki gatazkatsua gertatzen ari dena. Hori dela eta, UPV-EHUren euskalduntze-prozesua hartuko dugu aztergai, egindako plangintzei gainbegirada emateaz gain, bertako euskaldunen subjektibotasunean izandako gora-beherak ere aipatuz, geroari begira planteatzen ari den estrategiari buruzko iruzkin kritikoa egiteko asmoz.

UPV-EHUren euskalduntze-prozesuaren hasiera UEUren eraginpean abiatu zen hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, ikasle-irakasleen mugimendu errebindikatibo modura, baldintza objektiboen aurkako mugimendu subjektibo kolektiboa sortuz, hasiera batean Euskal Kultur Taldeen (EKT) inguruan gauzatu zena, euskararen beraren irakaskuntza errebindikatzen hasiz, laurogeiko ha-

markadan irakastaldi batzuk euskaraz ofizialki ematea lortu arte. Une horretan kokatu behar da euskal adarren sorrera, ia hogeitaz urte pasatu ondoren oraindik ere burutu gabe dagoena. Ordurako ikastola-mugimenduak nahiko bideratuta zeukan bere sistema berezia, euskarazko irakaskuntza gorantz eramanez, eta nola edo hala unibertsitate-ra heltzerakoan segurtatu egin behar zen euskarazko sistemaren jarraipena. Euskal adarren hazia ereinda zegoen, baina hori UPV-EHUko egituraren finkatu behar zen. Horretarako une egokia 1985ean etorri zen, orduan egin baitziren unibertsitate honen helburuak definitu eta antolakuntzarako arauak finkatuko zituzten estatutuak.

Estatutu horietako VIII. atalean hizkuntza ofizialen erabilera arautu eta euskarari dagokionez hainbeste esku bideren aitortpena eta helburuen zehaztapena egin ondoren, gaur egun ere, hamahiru urte pasatu ondoren oraindik bete gabe daude praktikan. Eta beldur gara, azkenaldian euskararen normalkuntzarako plangintzari dagokionez entzuten direnak entzunda, gerora ere erabat gauzatu gabe eduki nahi dituztela, paper erre bihurtuta. Horrela kontraesan nabaria dago esanaren eta izanaren artean. Letraren esanean estatutuen araberrako baldintza objektiboak on-itxurakoak izanda ere, eguneroko izanean ez dira benetako baldintza objektibo onak. Dena den, hor ere, geroago ikusiko dugunez, gure ustez balantza alde batera edo bestera desoreka dezakeena, unibertsitateen —eta herritar guztien— subjektibotasunean egon daiteke.

Has gaitezen helburu eta eskubideen aipamen xumetik, eguneroko hipokresia agerian uzteko nahikoa eta gehiegi ere baita hori. Kasurako, 241. artikuluan honako hauek daude idatzita:

1. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.
2. Unibertsitateak, bere kompetentzien eta betekizunen barrutian, mintzaira bien erabilera normala eta ofiziala bermatuko du.
3. Inork ez du hizkuntzagatik bereizkeriarik pairatuko.

Honaino hitzak. Kontua da horiek onartu zirenetik hamahiru urte pasatu diren arren, euskal adarrak oraindik

ere garatu gabe daudela hainbat eta hainbat fakultatetan. Eta estatutuetan legez onartutako exigentzia horiek Klausuroan pankarta batez azaltzeagatik, talde errektorialekoek —disziplina-batzordekoen laguntzarekin, hori bai— epaitegira eraman dituztela ikasleak. Eskubideak gauzaturik ikusi nahi lituzketenak kartzelara, hori eskatu eta exigitzeagatik! Horra hor estatutuen benetako indarra, azken urteotan UPV-EHUn eguneroko ogi bihurtu dena.

Baina segi dezagun aurrera estatutuen letrarekin. Asko esateko egon arren, nahikoa izango da zenbait ale aipatzearekin, lagin txikiak berak erakuts baitezake planteamenduaren hutsa. Hortaz, aurrera egin dezakegu estatutuen aipamenarekin, 243. artikulua aipamenarekin adibidez, honako hau dioena:

Unibertsitarietara ondoko eskubideok ezagutzen zaizkie:
 a) Edozein hizkuntza ofizialez irakaskuntza jaso edo eskaintzea /... d) Lanak, probak edo examinak edozein hizkuntza ofizialez egitea...

Ederto esanda legoke aurrekoa, euskarari dagokionez beteko balitz. Baina gaur egun, hamahiru urte pasatu ondoren, bermatzen den hizkuntza bakarra gaztelania da, eta oraingo plan berrien aitzakiapean «kartara» (sic) eskaini nahi den elebitasuna, erdaldunak euskalduntzeko izan ordez, euskaldunak betiko erdalduntzeko bidea jartzeko baino ez da. Izan ere, horretan baitago gakoa, alegia, hemen elebidun bihurtu nahi diren bakarrak jadanik elebidunak garenak direla, hots euskaldunak, euskal hiztunen kolektiboari euskara hutsez ikasketa-prozesu osoa burutzeko trabak behin eta berriro jarritz, gaztelaniazko lerroek traba hori sekula izan ez duten bitartean eta estatutuen letra zaharki aplikatzea horiekin —gaztelaniadun elebarrarekin— soilik bermatuz.

Baldintza objektiboak aldatuz joan diren neurrian, orain askoz errazagoa dirudi duela hamahiru urte estatutuetan jarritako helburuak lortzea. Ordea, badirudi oraingo praktikan helburuak aldatu nahi direla, eta unibertsitateko atal guztiak euskaldun ordez, eta euskaldunek ikasketak guztiak euskaldun gisa egin ordez —hau da, euskara

hutsez, erdaldunek gaztelania hutsez egiten duten era be-rean— orain euskaldunak elebidun modura formatu nahi dituztela. Norantza bakarreko sasi-elebitasun hori salatu behar dugu, euskararen osotasuna oztopatzeko traba bai-no ez baita. Eta gaztelaniadun elebakarrak UPV/EHUn be-tiko eroso bizi ahal izateko bidea.

Euskaldunak elebitasunaren gidari

Dena den, etorkizunari begira garrantzitsuena dena, euskaldunok prozesu horretan dugun kokalekua eta zere-gina da. Hemen dago, hain justu, subjektibotasunarekin loturiko arazoa. Kasurako, kritikatzin duguna bideratzen ari direnak aztertzen hasiz gero, laster kontura gaitezke UPV-EHUko gidaritzan talde errektorealean dauden asko eta asko euskaldunak direla, gaur egun talde horretako gehienak euskal hiztunak izanik. Zer gertatzen da hori po-siblea izan dadin? Horixe da, gure ustez, benetan kezkatu behar gaituena.

Bistakoa da, azken urteotan euskaldunen *integrazioa* gertatzen ari dela UPV-EHUko zuzendaritzan. Hori are na-barmenago egiten duen datu bat ere badago. Badira hain-beste urte euskaltzainen bat edo beste talde errektoral des-berdinetan egon dela. Gaur egun, errektorea bera eta errektoreorde bat euskaltzainak izateaz gain, badira beste biz-pahiru euskaltzain katedratiko direnak eta sailetako buru. Hala ere, horrek ez du isla zuzenik UPV-EHUn euskaldun-tze-helburu eta plangintza zehatzetan, eta estatutuetan ai-patzen diren euskaldunen eskubideak ez daude oraindik gauzatuta. Txarragoa dena, badirudi, plangintzen arabera, elebitasunaren bidea bultzatu nahi dela, jakinaren gainean egonik ere, abiatu gaudeneko egoera diglosikoan elebita-sun horrek gaztelaniaren bermea esan nahi duela.

Okerragoa dena, gure ikuspuntuaren arabera, azken aldion zenbait kasutan talde errektorealeko euskaltzainen izena *alibi* modura erabilia izan dela ikustea, oraingo plan-gintzaren —eta bestelako erabakien, hala nola Gasteizko falkultateko dekanotzaren gora-beheren inguruan harturiko erabakien— egokitasunaren berme modura. Gure ustez, or-

dea, euskararen plangintzaren aurka daudenak aldi berean gaztelaniaren egoera iraunarazteko ari dira izen hori erabiltzen, plangintza berrien aitzakiapean irakasgai guztiak euskaraz ez jartzeko proposamena bultzatzeko hain zuzen. Irakurri besterik ez dago, euskararen eta euskal kulturaren oztopatzaile ezagunak diren egunkarietako jarrera editorialak zein diren. Horietan guztietan, Bizkaitik gaztelaniaz argitaratzen den *El Correo* egunkariak 1998-VI-8an idatzitako editoriala izan da argigarriena. Argi esaten da bertan ondorio modura,

En cualquier caso, ha de tenerse también en cuenta que los vigentes modelos lingüísticos fueron diseñados a principios de los años 80. Dichos modelos han terminado configurando un esquema curricular rígido, y una vía unidireccional y compartimentada para el acceso del alumno a un bilingüismo efectivo. Sin embargo, la realidad partida que presenta cada alumno y cada grupo escolar y, los resultados definitivos que presentan los modelos implantados, parecen tan desiguales que invitan a reflexionar sobre dicho esquema. Es probable que un sistema más flexible, cuyo diseño correspondiera a cada centro y a cada grupo de alumnos, y tratara de adecuarse a su entorno lingüístico, pudiera ofrecer resultados más acordes tanto desde el punto de vista de la normalización lingüística como del de los rendimientos académicos. Es esta la reflexión a la que —en el fondo— está invitando el equipo rector de la UPV.

Hots, garbiago ezin: kartarako sistema ipini euskaldunak elebiduntzeko eta erdaldunak erdaldun elebatar segi-tzeko. Ez da kuestionatu behar elebidun bihurtzeko balio ez duten modeloak, benetako elebidunak sortzen dituen D eredu euskalduna baizik. Euskal adar osorik ez. Aurrera elebitasuna, UPV/EHUn talde errektoralaren eskutik.

Ez al da kezkatzekoa, sasi-elebitasun hori gauzatzen pausoak ematen dituzten bakarrak behin eta berriro euskaldunak izatea, eta azken boladan elebitasunerako bidean jartzen gaituzten gidariak beti ere euskaldunak izatea, eta ahal bada euskaltzainak edo euskaltzale errekonozituak? Izugarritzko asimetria antzeman daiteke planteamendu ho-

rretan, aurkako eran planteatzen ez den bitartean sinesgaitz egiten duena. Gure ustez abiapuntu hori aldatzea funtsezkoa da etorkizunari begira, orain egiten dihardugun diagnosiak geroko konponbiderako urratsak bide okerretik eraman ez ditzan. Baina aurrerago joanez, planteamen-
duan nabaritzen dugun subjektibotasunaren galera —edo nahiago bada, desmotibazioa— azken urteotan UPV/EHUn sistema unibertsitario espainolaren barnean gertatzen den integrazioaren ondorio dela uste dugu, eta horixe da kezkatzen gaituena.

Egitura unibertsitarioan izandako integrazioa. Integrazioak dakarren subjektibotasunaren galera.

Euskararen aldeko mugimendu orotan, baldintza objektiboen aurka egin behar horretan, euskaldunok alde aurretik zegoen *sistema gainditzeko ahalegina egin behar izan dugu, geure sistema propioa sortzeko ahaleginean*. Jadanik existitzen zen eta inposaturik zegoen sistemaren aurka edo sistema eraldatzeko erabilitako indar subjektiboa, sistema berri eta propio horren eraikuntzan erabili izan da beti. Baina aldi berean, sistemaren defenditzaileek behin eta berriro egin nahi izan diote aurre indar subjektibo horri, horretarako tresnarik baliotsuena sisteman bertan integratzearena izan delarik.

Integrazioak subjektibotasunaren deuseztapena ekarri du, gure ustez, ondorioz integraturik geratu diren gehienak euskararen aldeko mugimendu errebindikatiboetatik aldenduz. Zer pentsaturik eman behar lukeen adibide nabarmena izan da, kasurako, duela gutxi unibertsitateak euskal adarretako ikasleen aurka ireki duen prozesu judizialaren aurrean UPV/EHUko irakasle, administrazioko langile eta sindikatuek agertu duten pasibitatea; euskaldunena ere bai. Ez al da harrigarria? Estatutuen aplikazioa eskatzen zebiltzanak, euskaldunen eskubide baten gauzape-na aldarrikatzerara joan zirenak, pankarten laguntzaz Klausuroaren sesioa era baketsuan eten zutenak (betidanik oso normala eta sana izan dena), kartzela-zigorraz mehatxatu dituzte... eta hemen ez da ezer gertatu. Nola uler daiteke

hori, euskalduntze-prozesuaren hasieran egondako helburuak zutik badiraute? Zer arrazoik paralizatu ditu UPV/EHUn lanean diharduten euskaltzaleak, maila horretako jazarpen baten aurrean jaiki ez daitezten? Eta alderantziz esanda, zer arrazoi dago horren inguruko eztabaidan Pello Salaburuk gidaturiko bide zigortzailea salatzeko ikasleek eginiko protesten aurrean Pellori berari babes emateko, eta ez ordea ikasleei? Dela eskola-irakasleen aldetik, dela Euskaltzainditik? Zaila da ulertzen, euskararen aurka eraso objektibo baten aurrean, euskaldunen erabaki subjektiboa erasotzailea babestearen aldekoa izatea: hitzez edo isiltasunez. Gure iritzian, euskara berreskuratzearen aldeko mugimenduen indar subjektiboa puntu horretaraino deuseztu eta desagertu bada, irakaskuntza-sistemaren barneko integrazioa izan da kausa nagusienetakoa.

UPV/EHUko estatutuak onartu zirenetik, LORUren barruan egindakoak izanik, irakasleen —eta, zer esanik ez, AZPko langileen— integrazio-prozesu etengabekoa abiatu zen 1985etik aurrera. LORU legea bi urte lehenago ezarria izan zen, baina hala ere, oraindik eraketa-prozesuan zegoen Bilboko Unibertsitate hartan, beste bi urtez tinko iraun zuen eraikitze-nahi haren inguruko indar subjektibo eragile. Baina indar horri muga jarri izan zitzaion, Gregorio Monrealen eskutik unibertsitate espainolaren eredu inposatuz. Izan ere, UPV/EHUko estatutuak lege espainiarraren kopia baino ez ziren izan funtsezko atal guztietan, eta irakasleriaren antolakuntzari zegokionez bereziki. Klaustroan Irakasleria Propioaren sorrerari «demokratikoki» bidea itxi ondoren, zirrikitu posiblei muzin eginez eta LORUren eredu estatala inposatuz, irakasleriaren % 80 funtzionario bihurtu behar zen, beste % 20a formazioan dauden irakasle laguntzaileentzat edo unibertsitatez kanpo diharduten espezialistentzat utziz. Erabaki hori funtsezkoa izan da, irakasleak *funtzio* horretan integratzeko, alegia, elementu subjektibo eraldatzaileak alde batera utziz, unibertsitate espainiarrean bete beharreko funtzioan integratzeko.

Benetako salbuespen modura har daitezkeen salbuespen gutxi batzuk kenduta, jarraian eskematikoki azalduko dugunaren antzekoa izan da funtzionaritzarako bidean

irakasle gehienek pairaturiko eboluzioa, bereziki euskal kontzientziarekin eta Euskal Herriaren aldeko aldarrikapen eta mugimenduetan sarturik egondako irakasle gehienen kasuan.

Lehenengo pausoan, euskararen garapena aldarrikatuz, euskal adarren garapenaren aldeko apustua egin zuten batzuk. Zer esanik ez, horietako gehienak irakasle berriak izanik, eta asko formazio-bidean egonik, kontratupeko irakasleak ziren, irakasle ez-funtzionarioak beraz, eta mota berriko irakasleria aldarrikatzen zuten, funtzionarizazioaren bide estetuk apartekoa. Horren atzeko aldarrikapena irakasleria propioaren aldekoa zen, hots, unibertsitate honetako irakasleria —ez Espainiako gorputz bakarrekoa— euskalduna —euskal hiztuna alegia— eraikitzearen aldekoa. Baina estatutuak onartzean —Monreal errektorearen gidaritzapean, berriz diogu— ate guztiak itxi nahi izan zizkioten irakasleria propio horri. Berriro ere oztopo objektiboa inposatu nahi izan zen indar subjektiboa deusezteko. Askok lehenengo unetik barneratu zuten inposizioa funtzionaritzarako bidea (on)hartuz, unibertsitatearen egituran integratuz eta mota desberdinetako zuzendaritza-taldeetan sartuz euskararen aldeko aldarrikapena barrutik egingo zutela esanez. Baina ia matematikoki gertatu izan da alderantzizkoa. Behin funtzionario bihurtu eta sailetakozuzendaritzetan edo dekanotza- edo errektore-taldeetan sartuz, aurrez aurre izan dituzte sarritan euskal adarren aldeko aldarrikapenean zebiltzan ikasle-irakasleak. Txarrago oraindik, argumentazioan erabilitako arrazoi «objektiboak», finantzazio-falta, irakasle-falta, material-falta eta gisa horretakoak izan dira behin eta berriz. Hasieratik bertatik ez bageneki bezala, falta, eskasia edo hutsune horiek izan direla mugimenduaren beraren abiapuntua, eta gure eginbeharra hutsune horiek betetzea dela. Kontua da, praktikan behin eta berriro ikusten ari garenez, funtzionarizazio-prozesu horrekin batera euskalduntze-mugimendu aldarrikatzailean segitzeko desmotibazioa gertatu dela, integrazioaren efektu modura interpretatzen duguna.

Egoera aldatzeko subjektibotasuna izan duen pertsona lehendik dagoen sistema estatalean integratzean, ia

konturatu gabe, estatuaren logikan sartzen da, estatuak berak egiten dion marko-eskaintzara tolestu behar baitu bere jokabidea. Gure ustez, horixe da integrazioak herri-mugimenduetatik datozen pertsonen subjektibotasunean duen efektua: gogo askatzaile eta errebindikatzaileak ia konturatzeke alde batera uztea, inposaturik zegoen sistemaren arauen barnean eroso biziz eta herri-mugimenduen logikatik aldenduz.

Edozein kasutan, modu batera edo bestera, integrazioa noizbait heldu behar dela argudia daiteke; eta egia da, edozein erakunde publikoren helburua herritarren integrazioa lortzea dela. Nolanahi dela, euskarari eta euskal kulturari dagokionez, kontua honako hau da, alegia, integrazioa ezin onar daitekeela helburuak —kasu honetan unibertsitatearen euskalduntzea eta euskal adarren erabateko garapena— lortu aurretik, bestela erakundetik bertatik etorriko baita helburuen ukazioa. Hots, euskalduntze-prozesua erabat gauzatu arte ezin onar daiteke horrelako integrazioa, berarekin batera prozesua bera bermatzen duen subjektibotasuna deusezten baita.

Horixe da UPV/EHUko kasu paradigmaticoan ikusi —eta ikasi— duguna, goitik behera irakaskuntza-sistema publiko osora hedatzeko arriskua duena. Horrela ikusten dugu guk UPV/EHUn panorama, euskararen eta euskal adarren aldeko mugimendua aje horiek jotako toki eta elementu integratzaile modura.

Unibertsitate-munduan, ordea, bada bestelako ekimenik, euskara hutsez jaio eta bizi nahi duenik. Hain zuzen ere, zer esan dezakegu erdararen inposizio objektiboa gainditzeko sorturiko UEUri buruz (Udako Euskal Unibertsitatea)? Sorreran herri-mugimenduen ezaugarriak izan zituen, euskararen aldeko indar subjektiboa bideratzeko eta areagotzeko, lehenengo unetik egindako agiri eta manifestuetan jarritako helburuetan argi azaldu zenez, eta hein handi batean horri esker dago oraindik ere zutik eta bizirik. Subjektibotasunari dagokionez kezkatzen gaituena, ordea, honako hau da, alegia, unibertsitate ofizialaren ajeak kutsatuta indar subjektiboaren beherakada edo moteltzerik etor ote daitekeen.

Orain dela hiru urte, 1995eko apirilean egindako Kongresuan honelaxe definitu zuen UEUk bere helburu nagusia:

Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea: Euskal Herri osoa hartuko duen eta euskara lan- eta komunikazio-tresna nagusizat edukiko duen unibertsitatea.

Argi dagoenez, UEUk ez du helburutzat egungo unibertsitatea euskalduntzea, hortik aurreragoko pausoa ematea baizik, hots, marko berria sortzea, unibertso unibertsitario berria. Bere hitzetan:

Halaber, esan behar da egun Euskal Herrian diren unibertsitate bat edo batzuen elebiduntze osoenak ere ez duela euskal komunitate zientifiko-intelektual baterako oinarri sendorik bermatzen eta, beraz, hankamotz geratuko dela halabeharrez.

Eta horretarako estrategia-ardatzak markatu eta lan-ardatzak hautatu zituen. Hurbiletik ezagutzen dugu proiektu horren aldeko zintzotasuna eta lan eskerga, baina galdera bat dugu, honako hau hain justu: zergatik ez du UEUko herri-mugimendu horretan dabilen jendeak parte hartu, euskara dela, ikasketa-plangintzak direla, irakaslego propioa dela... beste unibertsitateetan sortutako gatazketan, berezkoa duen argia ezarriz, proiektu horiek Euskal Unibertsitatea sortzeko ahaleginarekin zerikusirik duten ala ez egiaztatzeko, eta eztabaida sakontzeko? Kontua da, herri-mugimendu horretan dabilzan asko eta asko —gehienak agian— UPV/EHUn eta Euskal Herriko beste unibertsitateetan dihardutela lanean, eta horrek bere eragina duela, zalantzarik gabe. Oso oker ote gabilta, oraingo unibertsitateen —zeinetan gu kategoria huts garen— efektu integratzaileak mugimenduko jendearen subjektibotasunean efektu kutsakorra izan dezakeela pentsatzean?

Ondorio modura

Artikulu honetako gogoetan bilduriko ideiak laburbilduz, gure iritziz, guztiz funtsezkoa da, euskararen aldeko herri-ekimenetan elementu eragile nagusia den subjek-

tibotasunari eustea eta horretan irautea. Argi utziz euskararen mundua ez dela erdal unibertsoaren itsasoan igerian dabilen euskal bertsioa, nortasun propioa duen mundu osoa izateko borondatea duen herritarren ekimen bateratua baizik, herri-mugimendua. Euskararen unibertsoaren inguruko gogoetetan erabilitako hitzak eta kontzeptuak gureganatuz, garbi azaldu behar dugu geure helburua: gu ez gara kategoria bat, benetako unibertso izateko lehendik datorren mundua baizik. Eta unibertso hori erabat gauzatu arte, funtsezkotzat dugu subjektibotasunari eustea, helburu horretatik urrun gaitzakeen oraingo kategoria izatean integratzen behin eta berriro ihes egin beharra dugularik.

Ez al dugu UPV-EHUko ikasgaitik ezer ikasi behar eta, behingoz, hango eredu paradigmatico desegokian antzemandako akatsak zuzendu behar? Zeren, helburua argi edukiz —euskaraz biziko den gizartea lortzea—, helburu horretarako bidean izandako akatsak zuzenduz baino ez baitugu helburura iristerik izango. Eta helburuaren definizioa, ezer bada, elementu subjektiboaren fruitua da, subjektibotasun kolektiboan erabakitakoa. Horixe da artikuluhonetan azpimarratu nahi izan duguna. ♣